

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2021eko maiatza

Euskal AEko landetxeetan, sarrerek % 26,7ko jaitsiera izan dute 2021eko maiatzean apirilarekin alderatuta, eta apartamentu turistikoetan, berriz, % 1,9koa

Landetxeen % 19,5 eta apartamentu turistikoen % 15,9 itxita egon dira maiatzeko egun guztietan.

2021eko maiatzean, 4.604 sarrera eta 11.227 gualdi izan dira Euskal AEko **landetxeetan**, hau da, 2021eko apirilean baino % 26,7 eta % 43,9% gutxiago, hurrenez hurren, Eustatek landutako datuen arabera. Alde horiek interpretatzeko garaian, kontuan hartu behar da apirilko datuek aste santu osoa hartzen dutela.

2020ko martxoaren 14an COVID-19aren pandemiari aurre egiteko ezarritako alarma-egoeratik aurrera, mugikortasunaren mugaketa aldakorra izan da. 2020ko maiatzean, ostatu-jarduera osasun-arloko eta oinarritzko langileak hartzera mugatu zen, eta, beraz, serie gehienak ez ziren argitaratu, estatistika-sekretua gordetzeko beharrari eta kalitate estatistikoaren inguruko irizpideei jarraikiz. Hori dela eta, ezinezkoa da 2020ko maiatzarekiko urtetik urterako konparazio bat egitea. Jarraian, 2021eko apirilarekin egingo dugu alderaketa.

Euskal AEko landetxeetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak. 2021eko Maiatza

	Sarrerak		Gualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/05	m/m-1 (%)	2021/05	m/m-1 (%)	2021/05	2021/04	plazaka		gelaka	
							2021/05	p.p.*	2021/05	p.p.*
EUSKAL AE	4.604	-26,7	11.227	-43,9	2,44	3,19	8,9	-7,2	12,5	-6,9
Estatukoak	4.311	-30,0	10.353	-46,9	2,40	3,17	-	-	-	-
Atzeritarrak	293	144,2	874	66,5	2,98	4,38	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	885	-44,7	1.862	-59,7	2,10	2,88	6,3	-9,9	8,8	-10,0
Estatukoak	841	-47,5	1.716	-62,7	2,04	2,87	-	-	-	-
Atzeritarrak	44	:	146	:	3,32	-	-	-	-	-
BIZKAIA	1.309	-33,6	3.095	-47,1	2,36	2,97	8,7	-8,1	12,5	-7,4
Estatukoak	1.234	-36,0	2.764	-51,4	2,24	2,95	-	-	-	-
Atzeritarrak	75	78,6	331	106,9	4,41	3,81	-	-	-	-
GIPUZKOA	2.410	-10,9	6.270	-34,4	2,60	3,53	10,3	-5,4	14,3	-5,1
Estatukoak	2.236	-14,9	5.873	-36,2	2,63	3,50	-	-	-	-
Atzeritarrak	174	123,1	397	13,1	2,28	4,50	-	-	-	-

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

p.p.*= aurreko hilabeteko berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

(:) Informazioa ez dago eskuragarri, dela datuaren kalitatea baxua delako, dela isilpekotasunagatik (konfidentzialtasuna), dela izaera estatistikoko beste edozein motiborengatik

Euskal AEko landetxeetan erregistratutako pertsona gehienak Estatukoak izan dira: 4.311 Estatukoak eta 293 atzeritarrak. Aurreko hilabetearekin (2021eko apirilarekin) alderatuta, % 30eko jaitsiera gertatu da Estatuko pertsonen sarreretan, eta % 144,2ko igoera atzeritarren sarreretan. Kontuan hartu behar da 2021eko maiatzaren 10ean amaitu egin zela nazioarteko mugimenduak murriztu zituen alarma-egoera. Gualdiei dagokienez, hilabetetik hilabeterako kopuruak behera egin du Estatuko pertsonen kasuan (% 46,9ko beherakada), baina nabarmen egin du gora atzeritarren kasuan (% 66,5eko gorakada).

Sarrerren beherakadarik handiena Araban gertatu da (aurreko hilabeteen baino % 44,7 gutxiago). Bizkaian, berriz, hilabetetik hilabeterako beherakada % 33,6ra iritsi da. Gipuzkoan, azkenik, sarrerek % 10,9ko beherakada izan dute. Era berean, hilabetetik hilabeterako bilakaera negatiboa izan da gaualdien kopuruan hiru lurraldeetan: % 59,7 gutxiago Araban, % 47,1 gutxiago Bizkaian eta % 34,4 gutxiago Gipuzkoan.

2021eko maiatzeko batez besteko egonaldia 2,44 egunekoa izan da, eta aurreko hilabeteen 3,19 egunera iritsi zen. Araban, batez besteko egonaldia 2,88 egunetik 2,10 egunera jaitsi da apiriletik maiatzera bitarte, Bizkaian 2,97 egunetik 2,36ra, eta Gipuzkoan 3,53 egunetik 2,60ra.

Gelakako okupazio-maila % 12,5era iritsi da maiatzean, eta, beraz, portzentajezko 6,9 puntuko beherakada gertatu da aurreko hilabetearekin alderatuta. Lurralde historikoak kontuan hartuta, okupazio-mailak honako hauek izan dira: % 8,8 Araban, % 12,5 Bizkaian eta % 14,3 Gipuzkoan. Era berean, Euskal AEko landetxeetako plazakako okupazio-mailari dagokionez, portzentajezko 7,2 puntuko beherakada gertatu da, eta % 8,9ra iritsi da. Zehazki, % 6,3 izan da Araban, % 8,7 Bizkaian eta % 10,3 Gipuzkoan.

Itxita mantendu diren landetxeak (%)

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	31,4	26,5	25,5	34,0	20,6	21,8	37,4	31,8	25,8	26,0	26,2	27,4
Otsaila	31,1	23,7	24,3	33,0	13,7	15,8	35,9	30,2	28,1	27,0	24,6	26,3
Martxoa	22,8	23,1	17,5	19,8	15,2	10,9	29,8	27,1	18,1	19,9	24,7	20,5
Apirila	18,0	92,7	11,6	16,8	97,1	6,8	19,5	91,4	12,5	17,6	91,2	13,6
Maiatza	19,5	60,9	12,1	15,7	71,4	6,8	22,3	57,8	14,1	19,6	57,2	13,6
Ekaina		33,4	11,4		35,2	6,9		32,6	12,6		33,0	13,1
Uztaila		18,6	8,3		16,2	5,9		21,4	8,7		17,9	9,4
Abustua		16,1	8,1		11,4	5,9		18,6	9,4		17,0	8,4
Iraila		15,4	8,1		11,4	6,9		17,7	9,4		16,0	7,9
Urria		18,0	10,0		16,0	4,9		19,2	12,4		18,2	11,0
Azaroa		28,6	13,5		25,5	6,9		35,9	20,2		25,5	12,6
Abendua		30,7	15,6		27,4	11,8		37,4	20,9		28,0	14,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

2021eko maiatzean, landetxeen % 19,5 itxita egon dira hilabete osoan (apirilean % 18,0 izan ziren). Lurraldeak kontuan hartuta, maiatz osoan itxita egon diren landetxeak % 15,7 izan dira Araban, % 19,6 Gipuzkoan eta % 22,3 Bizkaian.

APARTAMENTU TURISTIKOAK

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2021eko maiatzean sarrerak eta gaualdiak 4.036 eta 21.050 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko hilabetearekin alderatuta, sarrerek % 1,9ko beherakada izan dute, eta gaualdiek, berriz, % 6,7koa.

Hilabetetik hilabetera, Estatuko pertsonen sarrerek % 11,9ko beherakada izan dute, eta atzerritarren sarrerek berriz, % 190,8ko igoera. Gaualdiei dagokienez, % 12,4ko beherakada gertatu da Estatuko pertsonen kasuan, eta % 26,4ko igoera atzerritarren kasuan. Batez besteko egonaldia 5,22 egunekoa izan da maiatzean, hau da, aurreko hilabetean baino txikiagoa (5,48 egun apirilean).

Lurralde historikoak kontuan hartuta, 2021eko apiriletik aurrerako bilakaera ez da homogeneousa izan. Ildo horretan, Gipuzkoan sarreren kopuruak % 0,3ko beherakada izan du, baina Araban beherakada hori % 26,5era iritsi da. Bizkaian, aldiz, % 4,8ko gorakada gertatu da. 2021eko maiatzean, kontabilizatu diren gaudien guztizkoa apirilekoa baino % 9,9 txikiagoa izan da Araban, % 8,8 txikiagoa Gipuzkoan, eta % 0,9 handiagoa Bizkaian.

Hortaz, Euskal AEko apartamentu turistikoetan, batez besteko egonaldiaren bilakaera desberdina izan da lurraldearen arabera: Araban, 8,96 egunetik 10,97 egunera igo da apiriletik maiatzera bitarte; Bizkaian, berriz, behera egin du zertxobait (2,73 egun apirilean eta 2,63 egun maiatzean); azkenik, Gipuzkoan 7,90 egunetik 7,23ra jaitsi da apiriletik maiatzera bitarte.

Sarrerak, gaudiak, batez besteko egonaldia eta betetze-mailak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. 2021eko Maiatza

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2021/05	m/m-1 (%)	2021/05	m/m-1 (%)	2021/05	2021/04	plazaka		apartamentuka	
							2021/05	p.p.*	2021/05	p.p.*
EUSKAL AE	4.036	-1,9	21.050	-6,7	5,22	5,48	19,7	-1,8	42,3	-2,3
Estatukoak	3.444	-11,9	16.867	-12,4	4,90	4,92	-	-	-	-
Atzeritarrak	592	190,8	4.183	26,4	7,07	16,25	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	481	-26,5	5.280	-9,9	10,97	8,96	18,6	-2,9	50,5	-3,5
Estatukoak	453	-28,2	4.576	-11,0	10,11	8,16	-	-	-	-
Atzeritarrak	29	18,3	705	-2,3	24,63	29,83	-	-	-	-
BIZKAIA	2.157	4,8	5.662	0,9	2,63	2,73	16,0	0,4	35,4	2,4
Estatukoak	1.889	-4,0	4.760	-6,5	2,52	2,59	-	-	-	-
Atzeritarrak	268	198,8	902	73,2	3,37	5,81	-	-	-	-
GIPUZKOA	1.398	-0,3	10.107	-8,8	7,23	7,90	23,5	-3,2	42,5	-4,5
Estatukoak	1.102	-16,0	7.531	-16,4	6,84	6,87	-	-	-	-
Atzeritarrak	296	229,2	2.576	24,7	8,71	23,00	-	-	-	-

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

p.p.*= aurreko hilabetearekiko ehuneko-puntu aldea

Euskal AEko apartamentuen okupazio-maila % 42,3 izan da maiatzean. Lurralde Historikoak kontuan hartuta, Araban % 50,5era iritsi da, Gipuzkoan % 42,5era eta Bizkaian % 35,4ra. Plazakako okupazio-maila, berriz, txikiagoa izan da, eta % 19,7ra iritsi da Euskal AE osoan. Lurraldeak kontuan hartuta, plazakako okupazio-maila % 23,5 izan da Gipuzkoan, % 18,6 Araban eta % 16,0 Bizkaian.

Euskal AE osoan, apartamentuen % 15,9 itxita egon dira 2021eko maiatz osoan, hau da, aurreko hilabetean baino portzentajezko 2,4 puntu gehiago. Hilabetezko egun guztietan itxita egon diren apartamentuen proportzioa % 16,7 izan da Araban (apirilean bezala), % 16,1 Gipuzkoan (apirilean baino portzentajezko 0,3 puntu gutxiago), eta % 15,2 Bizkaian (apirilean baino portzentajezko 8,9 puntu gehiago).

Itxita mantendu diren apartamentu-turistikoen establezimenduak (%)

	EUSKAL A.E.			ARABA/ÁLAVA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019	2021	2020	2019
Urtarrila	24,1	21,3	12,5	21,7	13,6	10,0	15,2	21,4	12,0	30,8	25,0	14,3
Otsaila	25,0	21,3	12,2	21,7	13,6	10,0	18,2	21,4	12,0	30,8	25,0	13,5
Martxoa	18,5	18,0	8,5	17,4	13,0	5,0	15,2	22,6	4,0	21,2	17,4	13,5
Apirila	13,5	78,0	6,1	16,7	73,9	5,0	6,3	74,2	4,0	16,4	82,6	8,1
Maiatza	15,9	55,0	6,0	16,7	43,5	5,0	15,2	54,8	3,8	16,1	60,9	8,1
Ekaina		27,7	4,7		30,4	4,8		16,1	0,0		34,0	7,9
Uztaila		14,6	4,7		21,7	4,8		6,3	0,0		16,7	7,9
Abustua		11,8	5,9		13,0	4,8		6,3	0,0		14,9	10,5
Iraila		11,8	5,9		13,0	4,8		6,3	3,8		14,9	7,9
Urria		14,2	5,5		13,0	4,8		12,5	3,7		15,7	9,3
Azaroa		29,6	8,5		26,1	4,5		81,8	7,1		32,7	11,4
Abendua		25,0	14,1		17,4	4,5		18,2	14,3		32,7	9,1

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio-oharra

Establezimendu turistiko hartzaileen inkestaren erantzun-tasa % **97,7** izan da landetxeen kasuan, eta % **92,9** apartamentu turistikoaren kasuan. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62